

**GOBERNU JUNTAK 2016.12.01ean EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
AITOR GABILONDO ARENAZA (ordezkoa)
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
IBON ARRUPE ALDECOCEA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

OSCAR GARCÍA HORRILLO
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko abenduaren 1ean, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin aurretik, eta lehendakariaren aurrean, Aretxabaletako Udalaren ordezkari ordezkoa den Aitor Gabilondo Arenaza jabetu da bere Juntakide karguaz.

1.- ZERBITZU OROKORRAK

1.1.- 2015eko Kontu Orokorra onartzea

Azterturik 2015. ekitaldiko Kontuak eta Kontuen Egoera Orriak, eta Gastuen Aurrekontua erkatu ondoren kontuen likidazio eta egoera-orriekin, 2015.12.31ko egoera-balantzearekin eta data bereko emaitza-kontuarekin, baita abenduaren 31ko kutxako zenbaketaren emaitzarekin ere, eta azterturik halaber ibilgetuko parte diren ondasunen aldaketak, baita pasiboen aldaketa ere, Gobernu Junta honek uste du behar bezala justifikaturik daudela kontu horiek.

Bestalde, jendaurrean ikusgai jarri dira aipaturiko Kontuak 15 lan-egunez, eta ez da batere erreparo edo oharkizunik horietaz; beraz, Kontuen Batzorde Bereziak uste du onartu egin behar direla kontu horiek.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. 2015eko ekitaldi ekonomikoko Kontu Orokorrari onespena ematea.

1.2.- 2017ko Aurrekontu Orokorraren zirriborroa

2017. ekitaldiko Aurrekontuaren lehen zirriborro bat aurkeztu du kontu-hartzaileak. Gobernu Juntaren hurrengo bilerara behin betiko zirriborroa ekartzea aurreikusten duela esan du, Juntakideen aldaketa proposamenak eta iradokizunak jaso ondoren.

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

2.1.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen aldaketa onartzea

2016ko abuztuaren 5ean Debagoieneko Mankomunitateari jakinarazi zitzaion, entitate kontsortziokide den aldetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2016ko uztailaren 28ko bilkuran hartutako erabakia; estatutuak aldatzeko proiektua behin betiko aldatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Estatutu horiek 2007ko maiatzean onartu zituzten entitate kontsortziokideek, eta urte horretako maiatzaren 17an eman ziren argitara, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratu zenetik hirutan aldatu izan dira: lehendabizi, 2009an (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 123. zk., 2009ko uztailearen 3koa), Txingudi Mankomunitatea Kontsortzioran sartu zelako. Bigarren aldiz, Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planean (2009ko uztailearen 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren bitartez onartua) jasotako azpiegiturak eraikitzeo eta ustiatzeko proiektuak zehazteko lanak asko aurreratu zirelako, eta ondorioz, Kontsortzioa estatutuez hornitu behar zelako, aipatutako proiektu horiek arlo juridikoan, ekonomikoan eta ondare arloan sendotzeko, eta proiektu horiek ezinbestekoa zuten finantzaketa lortzen laguntzeko. Eta, xede horri begira, Kontsortzioko Batzar Nagusiak, 2009ko abenduaren 22ko bilkuran, bidezko estatutu-aldaketa onartu zuen behin betikoz (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 114 zk., 2010eko ekainaren 18koa). Eta hirugarren aldaketa, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoko Lehen Sekzioak, 962/07 errekursoan, 2009ko irailaren 21ean emandako epai irmoa betetzeko izan zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 84 zk., 2013ko maiatzaren 6koa).

Izapidetzen ari den estatutu-aldaketa hau (2016ko martxoaren 22an hasierako izaeraz onartutakoa) Kontsortzioaren araubide juridikoa egokitu beharrak ekarri du; hau da, honako araudi hauetan xedatutakora moldatu beharrak: Kontsortzioen Araubide Juridikoari buruzko 30/92 Legearen Hogeigarren Xedapen Gehigarria; Sektore publikoa arrazionalizatzeko eta administrazioa eraberritzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legearen 12., 13., 14. eta 15. artikulua. Alabaina, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 lege berriak, urriaren 1ekoak, araubide integral (sorrera, atxikitzea, funtzionamendua, desegitea) eta oinarritzkoa jasotzen du kontsortziora buruz (118. art-tik 127. art-ra, eta 10. XG) eta berariaz indargabetu egin ditu 15/2015 Legearen 12., 13., 14. eta 15. artikulua, TAOALaren 87. artikulua eta TAOALaren testu bategineko 110. artikulua. Halaber, Herri Administrazioen Jardunbide Administrazio Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, erabat indargabetu du 30/1992 Legea. 40/2015 Legeak kontsortziora buruz biltzen duen oinarritzko araudia transkribatutako araudiarekin bat badator ere, beste aurreikuspen batzuk sartu ditu, eta horiek ere txertatu dira onartutako aldaketa-proiektuan. Hori guztiak bidezko moldaketa egitera behartu du Kontsortzioa, eta horretarako, estatutuak aldatu beharra etorri zaio.

Bestetik, proiektatu den aldaketa horretan, aplikatu beharreko araudian zerbitzuak kudeatzeko aurreikusita dauden modu ezberdinak erabiltzeko aukera planteatu da.

Aipatu aldaketaren espedientea tramitatu da betetzen direla Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen 35. artikuluan exijitutako prozedura-betekizunak, eta gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako nahitaezko izaera duen txostena ere biltzen du. Hala, azkenik, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko entitateak arautzen dituen 6/2007 Foru Arauak, apirilaren 10ekoak, 11. artikulua d) apartatua aurreikusitakoaren arabera, eta gorago aipatutako 35. artikulua horretan bertan ezarritakoari jarraituz, estatutuak aldatu ahal izateko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa osatzen duten entitate kontsortzio kideen gehiengoak bere onespina ematea beharrezko da, erakunde bakoitzaren barruan horretarako eskumena duen organoaren akordio bidez.

Dagozkion ondorioetarako, Mankomunitate honetako idazkariak, onartu nahi den erabakiaren legezkotasunari buruzko txostena egin du.

Mikel Biainek, Oñatiko alkateak, esan du ez dela nahiko denbora eman estatutu-aldaketa proiektu hau, eta berak ekar ditzakeen ondorio juridikoak Udal bakoitzean aztertu eta lantzeko.

Azkenik, bidezko eztabaidaren ondoren, Gobernu Juntaren legezko kide-kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, hau da, baiezko 9 botorekin (Unai Elkoro, Aitor Gabilondo, María Ubarretxena, Juan Karlos Garitano, Ibon Arrupe, Elena Lete, Lander Arregi, Sabino Azkarate eta Jose Ramón Zubizarreta), eta ezezko 3 botorekin (Beñardo Kortabarria, Mikel Biain eta Iraitz Lazkano), Gobernu Juntak ZERA ERABAKI DU:

Lehenik.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren estatutuak aldatzeko proiektua onartzea, Kontsorzio horren Batzar Nagusiak 2016ko uztailaren 28an emandako behin betiko akordioari jarraituz. Horrek, akordio honen eranskinean ageri diren artikulua aldatu beharra dakar berarekin, beroriei emandako idazkeraren arabera.

Bigarrenik.- Hartutako erabakia Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari jakinaraztea eta Mankomunitate honen Gardentasun atarian argitaratzea.

2.2.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Kontu Batzorde Berezirako ordezkaria izendatzea

Lehendakariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Lander Arregi Inchausti izendatzea Mankomunitate honen ordezkaria Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Kontu Batzorde Berezirako.

2.3.- Papera eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea; Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren aldaketak onartzea

Ikusirik Gobernu Juntaren azken bilkuran onartutako papera eta kartoia saltzeko Administrazio Klausula Partikularren Agirian hainbat aldaketa sartzea proposatzen dela Ingurumen Zerbitzutik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu aldaketak sartu, eta Administrazio Klausula Partikularren Agiri berria onartzea.
2. Esleitze prozedura irekitzea.

2.4.- Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetzaren hitzarmena

Hondakinen Kudeaketa Batzordearen lehendakariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:



- Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENENGOA. – Lankidetzak hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honek IV. Azalpenean aurrez ikusitako xedeetarako Debagoieneko Mankomunitateak eta Elikagaien Bankuak lankidetzan jarduteko baldintzak finkatzea du helburu. Beraz, Debagoieneko Mankomunitatearen kide diren udalerrietan sortutako hiri-hondakinen kopurua murrizten saiatuko dira eta, horretarako, elikagaiak hondakin bezala kudeatzeko ohiko ibilbideetatik (normalean, konpostatzea edo zabortegia) giza kontsumora desbideratuko dituzte. Horren harira, Elikagaien Bankuak Debagoieneko Mankomunitatearen eremuan egiten duen gizarte-lan garrantzitsua sustatu eta bultzatuko da.

BIGARRENA .– Debagoieneko Mankomunitatearen berariazko konpromisoak

Hitzarmen honen esparruan, San Markoko mankomunitateak hurrengo konpromisoak onartzen ditu:

1. Elikagaien Bankuari behar dituen edukiontziak ematea jarritako helburuak betetzeko.
2. Edukiontzi horiek Elikagaien Bankuko instalazioetako fatxadatik jasotzea; horretarako, Bankuak instalazioetan sartzeko utziko du, partzelara sartzeko ate handia zabalik utzita, eta edukiontziak kanpora aterako ditu, zerbitzu edo zatiki bakoitza iristeko aurreikusitako ordua baino lehen.

Horretarako, bi aldeek dagokion Enpresa Jarduerak Koordinatzeko Protokoloa idatzi eta sinatuko dute.

3. Barne ekintzei buruzko aholkularitza ematea, Elikagaien Bankuak Mankomunitatearen esparru geografikoan dituen instalazioen barruan sortutako hondakinak egoki bereizteko eta minimizatzeke.
4. Une oro informazioa eta jarraibideak ematea erabili daitezkeen hobekuntza teknikoei buruz, Elikagaien Bankuaren ohiko zereginen ondorioz sortutako hiri hondakin solidoak ezin hobeto sailkatu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Elikagaien Bankuaren berariazko konpromisoak

Hitzarmen honen esparruan, Elikagaien Bankuak ondorengo konpromisoak onartzen ditu:

1. Bere instalazioetan sortzen den eta zabortegira doan hondakin-bolumena (hondakin organikoak ontziekin, metalarekin eta abarrekin nahastuak) minimizatzeke lanean aritzea.

2. Argi eta garbi onuradunen artean bana ezin daitezkeen elikagaien bilketa saihestea, horien berehalako jomuga zabortegean deuseztatzea edo antzeko tratamendu finalista izatea bada.
3. Urteko jarduerari, plan estrategikoei eta eboluzioari buruz Mankomunitateari puntualki berri ematea (memoria eta urteko kontuak).

LAUGARRENA.- Jarraipen-batzordea

Aldeek hitzarmenari buruzko jarraipen-batzordea eratzea hitzartzen dute eta ondorengo zereginak izango ditu:

1. Hitzarmenaren betetze-maila zaintzea eta interpretazioari, betetzeari eta gauzatzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.
2. Bi aldeek onartutako konpromisoetan hobekuntza-eremuak aztertzea.
3. Interes bateratua duten gaietan lankidetzak aukera berriak proposatzea.

Jarraipen-batzordea lau kidek eratuko dute; bi Debagoieneko Mankomunitateko presidentek izendatuko ditu eta beste bi Elikagaien Bankuak. Aipatu pertsonak heuren ordezkatzen dituzten erakundeen barruan erabakitze eta betearazteko gaitasun nahikoa izango dute. Hala eta guztiz ere, batzordeak landu behar dituen gaien espezifikotasunaren arabera, ahotsez baina botorik gabe, lantzen ari den arloan adituak edo profesionalak erants daitezke.

Edozein kidek gainerakoei deialdia egin ondoren, jarraipen-batzordea kideek proposatzen dituzten gaiak lantzeko bilduko da.

Jarraipen-batzordeak bilera egiteko deialdiaren eta saioaren egunaren artean gutxienez bost (5) egun natural egongo dira.

Jarraipen-batzorderako deialdiak hurrengo moduan egin daitezke: (i) horiek eskuz entregatu edo (ii) jaso izanaren adierazpenarekin aldeek azaltzen duten helbidera gutun ziurtatua bidalita ala (iii) alde bakoitzak aipatzen duen posta helbidera posta elektronikoa bidalita beste posta elektronikoa bat bidaliz edo harrera adieraziz.

Jarraipen-batzordea osatzen duten pertsonak edozein unetan beste batzuekin ordezka daitezke, baina izendatutako kide berriak Debagoieneko Mankomunitateari edota Elikagaien Bankuari lehenengo bileran ordezkatu baino lehen, beste aldeari jakinarazi beharko zaio, kasuak kasu.

Jarraipen-batzordea baliozkoa izateko, gutxienez erakunde bakoitzeko kide banak egon beharko du, bertaratuta edo behar bezala ordezkatuta.

Saio bakoitza amaitzen denean, jarraipen batzordeak akta egin dezake, edozein kidek eskatu ostean.

BOSGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmena aldeek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean eta hurrengo bi urteko iraupena izango du.

Hasierako epea edo paragrafo honetan xedatutakoaren arabera, edozein luzapen igaro ostean, urtebeteko denboraldi gehigarritz hitzarmena automatikoki berrituko da, edozein alde hitzarmenaren epemugarekiko edo luzapenekiko gutxienez 45 egun natural lehenago kontrakoa jakinarazten ez duen bitartean.

SEIGARRENA.- Lankidetzahitzarmena ebaztea.

Aipatu hitzarmena indarraldia igarotzeagatik, hitzarmena beran ebazteagatik edo salatzeagatik iraungiko da.

Xede horiez, honako arrazoiengatik ebatz daiteke:

- 1. Edozein alde idatziz uko egiteagatik, 45 egun natural lehenago ohartarazita.*
- 2. Hitzarmen honen edozein klausula ez betetzeagatik.*
- 3. Hitzarmenaren zatiren bat iraungitzeagatik.*
- 4. Elikagaien Bankuak Mankomunitateko geografia-eremuan jardueragoitza uzteagatik.*

ZAZPIGARRENA.- Legeria aplikagarria eta eskumena

Hitzarmen hau administratiboa da; ordenamendu juridiko administratiboak zuzenduko du interpretazioa eta garapena.

Hitzarmen honen ondorioz sortutako alderdi gatazkatsuak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren agindupean egongo dira.”

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.